

PAGOETAKO UDAL IGERILEKUETARAKO 3 SOROSLEREN KONTRATAZIOA

Kontratu mota

- Produktzio gora-beherengatik lan-kontratua (502), %77ko lan-jardunaldia (dedikazio hori haunditu egin daiteke denboraldian sortzen diren premien arabera, zerbitzuko beharengatik edo eguraldiagatik).
- Kontratazio epea: 2024/06/16 - 2024/09/08.
- Soldata: 1.544,88 €/hileko izango da. Jai egunetan egindako orduengatik jai-eguneko plusa jasoko da, 8,82 €/orduko.

Lan eginkizunak:

a) Igerilekuko eremuaren arreta eta zaintza, eta hango zerbitzuena, uretako jolas gunea barne (txorroren iturria). Igerilekuetako segurtasun eta disziplina soroslearen ardura izango da, erabilera kolektiboko igerilekuen osasun araudia onartzen duen otsailaren 18ko 32/2003 Dekretuan eta osasun araudi bera aldatzen duen azaroaren 2ko 208/2004 Dekretuan ezarritakoa bete beharko du, baita ere 2020/12/17ko Urretxuko kirol instalazioen Arautegian ezarritakoaren arabera, kanpoko igerilekuko erabilerari dagokionez, instalazioen funtzionamendu onerako Urretxuko Udalak emandako jarraibideak.

Sorosleek igerilekuko eremuan egon beharko dute jendeari ireki baino 10 minutu lehenago gutxienez, eta egunero ur ontzietarako sarbidea ireki eta ixtearen ardura izango dute.

b) Langile horiek une oro sorosle moduan identifikatuta egongo dira, eta horretarako Udalak arropa egokia eman beharko die, eta haietan "Soroslea/Socorrista" hitzak agertuko dira arropa horretan, ondo ikusteko moduan.

c) Sorosleek, nahitaez, uretako soroslearen titulazioa izan beharko dute, dagokion Salbamendu eta Sorospen Federazioek, Gurutze Gorriak emandakoa edota Ziklo akademikoen bidez prestakuntza espezifikoa bitartez.

d) Erabiltzaileen segurtasuna zaintzea, sorospen eta laguntza zerbitzua emanaz beharrezko litzatekeen guztietan, bereziki, saltoak eta urperatzeak. Sorosleak igerilekuaren gunean gertatzen diren lesioak atendituko ditu, sortzen diren sorospen-, gorabehera- eta istripu-parteak betez, eta jende gehieneko orduetan erabiltzaileen kontaketa inguru du.

Sorosleek zaintza eta prebentzio zerbitzu hori otsailaren 18ko 32/2003 Dekretuan eta 2ko 208/2004 Dekretuan ezarritakoaren arabera egingo dute eta Urretxuko Udalak emandako jarraibideak, Urretxuko Kirol Instalazio Zerbitzuen Araudiak berak eta indarrean diren beste legezadapenek emandako jarraibideetan zehaztutakoaren arabera emango dute.

e) Sorosleak izango dira botikinaren eta han dauden material eta botiken kontrola egitearen arduradunak, bai eta larrialdi zerbitzuei deitzearen arduradunak ere, sortu den egoerak gainditu egiten dituen sorosleak instalazioan bertan laguntza emateko dituzten aukerak.

f) Erabiltzaileek arauak bete ditzaten ahalegindu. Sorosleen lana ez da bakarrik bere parte-hartzea eskatuko lukeen gertakizunen bat zaindu edo pasiboki itxarotera mugatzen. Arauak bete daitezzen zainduko du, espazioen erabilera, igeriketa, librea izanik ere, modu homogeneoan egin dadila, eta oro har, igerilekuko arauak bete daitezela ere zainduko du.

g) Sorosleek hitz emango dute, zehaztuta dagoen Autokontrol Plana aurrera eramango dutela, zehaztuta dauden jarraibideen arabera.

h) Sorosleek mantenuko langileei lagundu beharko diete, Udalak beharrezkotzat jotzen duenean, ur-ontzietako uraren kalitatearen kontrolean.

Derrigorrez bete beharrekoak:

- Gutxieneko adina: 18 urte.
- Gutxieneko prestakuntza maila: Eskola Graduatua, Bigarren Hezkuntzako Graduatua, Lanbide Heziketa 1. maila edo baliokidea.
- Lehen sorospenetako eta kanpoko desfibriladore automatikoaren erabilerako, eta uretako sorospeneko titulua.
- Euskarako B2 titulua edo baliokidea.
- Kontratazio aldian erabat libre izatea, hau da, 2024ko ekainaren 14tik irailaren 8ra.
- Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztea (Adingabeen Babes Juridikoaren 1/1996 Lege Organikoa, 26/2015 eta 45/2015 Legeek aldatua).

Merituak:

Derrigorrezko irizpide guztiak betetzen dituzten hautagaien artean, honako puntuazioa hartuko da kontuan aukeraketa egiteko:

1.- Errolda		Gehienez 5 puntu
	Urretxun erroldatuta egotea 2024/04/01 baino lehen	5 puntu
	Urola Garaia-ko beste herri baten erroldatuta egotea 2024/04/01 baino lehen	2 puntu
2.- Sorosle lanetan esperientzia		Gehienez 10 puntu
	Urretxuko udal igerilekuan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko	1,5 puntu
	Beste instalazio batean emandako zerbitzu-hilabete bakoitzeko	1 puntu
3.- Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten ikastaroak/ikasketak		Gehienez 5 puntu
4.- Lanpostura egokitzeko elkarrizketa pertsonala (*)		Gehienez 3 puntu

(*) Elkarrizketa pertsonala egin ahalko zaie 1etik 3rako merezimenduen balorazioan puntuazio altuena lortzen duten 6 hautagaiei.

Behar bezala egiaztatutako meritua bakarrik izango dira kontuan.

Ez dira egiaztatu behar Urretxun erroldatuta egotea eta Urretxuko Udalean izandako esperientzia, baina bai adierazi behar dira, kontuan har daitezten.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera-orria
- NAN-ren kopia
- Deialdian eskatutako tituluak egiaztatzea
- Curriculum eta adierazitako merituen egiaztagiria

Aurkezteko epea eta tokia:

- Eskaera-orriak 2024ko maiatzaren 15era arte (14:00ak bitartean) aurkez daitezke, Urretxuko udaletxeko erregistro nagusian.

Epaimahaia

Epaimahaia modu honetan osatuko da:

Lehendakaria: Herritarrak batzordearen Lehendakaria

Mahaikideak:

- Sustapen Soziokulturaleko kide bat.
- Administrazio orokorreko kide bat.
- Langileen ordezkari bat.

Idazkaria: administrazio orokorreko kide bat

Epaimahaiak balorazioa egin ondoren, puntu gehien lortu duten izangaiak kontratatzeko proposamena egingo du.

Lan-poltsa:

Baldintzak bete dituzten izangaiekin lan-poltsa osatuko da, lortutako hurrenkeraren arabera, eta kontratazioak dirauen bitartean sortzen diren beharrei erantzuteko erabiliko da.

Urretxun, 2024ko apirilaren 25ean

Sin.: Jon Luqui Albisua
Urretxuko alkatea